

1_ Dinamizatzaileak ekitaldiari hasiera eman dio udalaren ordezkartzan batzarrera bertaratu dien pertsonen aurkezpena eginda. Ondoren, azaldu du batzarrak edukiko duen egitura: , lehenik Gobernu Taldeak udalerraren egungo egoeraren azalpena egingo du eta gero txanda emango zaie auzokideei, bilera honetan tratatzen diren zonaldeei dagozkien egoki irizitako gauzak eta gaiak azaltzeko; horiei saiatuko dira erantzuna ematen, azkenik, Gobernu Taldea eta udal teknikariak. Natxo Urkixo, alkateak, aipatu du batzarraren gai-zerrenda:

2_Obra eta Zerbitzuen Foru Plana:

- Geltokia-Tunela-Maestro Elorza
- Lamuza parkea.

3_ Altui.

4_ Frontoia.

5_ Hockey zelaia.

6_Santa Gurutze Baseliza

7_Irurutzetatik Txirritaraino asfaltatzea

8_Jolas Parkea.

9_ Enpresa mintegia

10_ Audio Udalaren web berria.

11_ Zabor organikoaren bilketa.

12_ Gardeako Jaiak 2015

2_Obra eta Zerbitzuen Foru Plana: Bi obralan esleitzen dira, gehienez ere, Arabako udalerrri bakoitzeko. Laudion:

- Irisgarritasuna geltokira-tunela- Maestro Elorza: ,saneamenduaren 2. Faseari dagokio, Zubiko Kurajotik Altzarrate (lehen, Villosa) zubiraino. Urtarrilan hasiko da tuneleko obra, 2,5 metro zabal izatetik 7 metro izatera pasako dena.
- Lamuza parkea. Planean sartu da Aldaiko erreka saneamendua eta oinarritzko azpiegiturak berritzea. Udalak ordaintzen du obralanaren %80-90a.

3_ Altui: Uren saneamendu sarea amaituta dago. Horrekin bukatutzat jo dira Altui aldera tratatutako ura eramateko lanak.

4_ Frontoia: Konpondu da itoginen arazoa. Segurtasuneko kable bat ipini da ("bizitzaren haria") teilatura igo ahal izateko.

5_ Hockey zelaia: Zelaiaren erabateko garbiketa integrala egin da. Konpontze-lanen batzuk egiten joango dira zelaiko elementu batzuetan.

6_Santa Gurutze Baseliza: , gaur egun, auzoko batzuek erabiltzen eta egokitzen ari dira eta Herriko Etxea planteatzen ari da ea aukerarik dagoen horren lagapena egiteko auzokoei erabili eta goza dezaten, herriko beste edozein kulturako lokale legez eta horrela bere zerbitzuak hobetzeko.

7_ Laster hastear dago asfaltatze-lana Irurutzetatik Txirritaraino. Obralana esleituta dago Yarritu enpresari eta soilik falta da lanean eta ekinean has daitezen.

8_ Ping-pong mahaia ipini da Irukurutzetan dagoen parkean, Fuentesila eta Laurak tabernen artean.

9_ Enpresa mintegia Dagoeneko inauguratu da Arzan. 9 lokal prestatu eta gaitu dira beraien enpresa propioa sortzeko asmoa duten pertsonen, hori egin ahal dezaten ahalik eta arazo eta eragozpen gutxien tarteko direla.

10_ Audio Udalaren web berria: www.audio.eus, web berri honek baditu gauza berri ugari, hala nola iradokizunen postontzia, bere baitan eta bere bitartez kontsultak egin ahal izateko aurkera, e.a.

11_ Zabor organikoaren bilketa: Aiarako Kuadrila da zabor bilketa sistema hori burutzen eta gauzatzen ari den lekua. Badatza banatzean kita (500 euskalde osoan), zein batzan “minikonpostailu” otzara batean, poltsa biodegradagarriak diren paketearekin eta edukiontzia zabaldu eta ixteko giltza batekin eta bertan uzteko zabor organikoaren aipatu den poltsa hori. Egiaztatu dugu ezen Gardea auzoan ez dela erabiltzen sistema hori. Laster barru, berriro egingo kiten banaketa eta planteatuko da Gardean informazio gunea ipintzea, gaiaz informazio gehiago eduki dezaten eta anima daitezen zabor organikoaren hondakinen bilketa sistema hori erabiltzen.

12_ Gardeako Jaiak 2015. Hasierako bilera deialdia eginda dago 2015eko urtarrilaren 13rako, 2015 urteko jaiak prestatzen hasteko, izan ere, iaz bazirudien ez zuela inork ekimenik horiek antolatzeke eta gero arazoak egon ziren auzoko talde ezberdinen artean.

Auzoko baek eskatu du aurreko auzo batzarreko akta irakurtzeko eta pasa da aipatzera bertan ipatutako aspektuak, oraindik egin gabe edo eskegita daudenak:

- Taberna bien arteko aparkalekua: Alkate den Natxo Urkixok dio horren aldaia txarto eginda dagoela. Teknikoek begiratu dute gaia eta ez dute soluzio azkarrik; Felipe Markuartu, udal teknikariak dio eroriko aldaia aldatu eta berriro asfaltatu beharko litzatekeela. Natxo Urkixok komentatu de, ezen, halaxe dela, horixe de soluzioa, baina ezin duela serguru esan noriz egin, gauzatu eta egikaritu ahal izango den.
- Talleres Abasolo aldean dagoen ur baltsa.

Beste auzoko batek aipatu du Goikoetxe aldea. Kexu da kale garbiketaz, kaleen hondatzeaz, e.a. Udal teknikariak idatzizko oharra hartu dute horretaz, enpresa esleipendunari hori komentatzeko. Auzokide berberak, baita komentatu du ere, ezen bere auzokideen erkidegoan ez duela nahikoa presiorik eta auzoko batzuei ez zaiela ur berorik ere iristen. Udal teknikariak erantzun dute presioa soberan dagoela. Arazoa badela barru aldeko instalazioa, tutueriak oso zaharrak eta estuak direla eta ordeztu beharko liratekeela eta hori dagokion auzokoaren atariko elkarteari dagokiola.

Auzoko batek eman dio alkateari 2014ko azaroaren 28an Gardeako Santa Gurutzeko auzokoaren egin zuten bileraren akta auzoko bizilagunen informazioa jasotzeko eta planteatzeko batzarrean, bertan jasotako beharrian eta iradokizun ezberdinak:

1.- Estaltzea Gardeagotxiko gurutzagunetik Zabaleraino doan errepidean dagoen kainua. Ipintzea ahal denik diametrorik handieneko tututa eta estalki saretak, bakoitza, batz bestea, 15 metroko diametroaz.

2.- Garbitzea erreka bi urtean behin Zabale gurutzagunetik Zaldarriagaraino eta ubide erdiko lizarra kentzea.

3.- Prestatzea aparkamendua Zabale gurutzagunean, edukiontzien aurre aldean.

4.- Santa Mariaren etxe aurreko (Katuxa Jauregia) bihuguneko ispilua aldatzea eta galtzadako zorua markatzea bihrgune horretan trazatuaren ikusgarritasuna hobetzeko. 5.- Katuxa zubitik trenaren geralekuraino oinezkoen pasabideak ipintzea.

6.- Gurutzagunearen seinalizazioa. Auzo ezberdinetarako norabidea eta ibai ondoko enpresen aurkibidea.

7.- Gardeagotxi eta Zabalerako bideetako erretenak garbitzeko egutegia finkartzea eta aztertzea fumigatzeko aukera.

8.- Baselirako bidea asfaltatzea eta urak jasotzea.

9.- Zabale bidetik zubirainoko kutxatilak garbitzea eta autobiarako bidearen amaieran.

10.- Ipintzea farolak baselizaren mendebaldeko aldean ikusgarritasuna hobetzeko.

11.- Bidagurutzea ispilua ipintzea, baselizako bidetik irteeran ikusgarritasuna hobetzeko.

12.- Auzoko zabor edukiontzien garbiketa, urtean hiru aldez (arrazoitu dute arrotioak daudela). Planteatu da zabor edukiontzion garbiketarako egutegi bat ezartza, dagokion kontrolaz.

ERANTZUNA.- Mikel Lasal, Aiara Kuadrilako buruak badio idatziko oharra pasatuko diola INBISA enpresa esleipendunak komunikatzen dion teknikariari, jarduera protokolo bat ezartzeko. Hala ere, azaldu gu badagoela protokolo bat ezarrita, baina batzar honetan komentatuaren berri emango duela.

13.- Talleres Gometegui ondoko belarra moztea.

ERANTZUNA.- Alkateak galdetu du ea leku hori zona publikoa ala pribatua den.

14.- Asfaltatzea Santa Gurutzetik Zabalerako bidea.

Auzoko batek eskatu du garbiketa lanak ailega eta iritzidaitezen auzo osora, hala behe aldeko lekuetara nola leku altuetara.

ERANTZUNA.- Kale garbiketa ailegatzen ez den lekuetan, aurkez dadila kexua idatziz Herriko Etxean, jasota gera dadin hori idatziz eta konponu eta soluziona ahal izan dadin. Alkateak komentatu du ezen Kuadrilatik eta Herriko Etxetik iradoki ahal zaiola, eta ez exijitu, enpresa esleipendunari garbiketaren kontrol sistema bat.

Beste auzoko batek adierazi ditu auzoko eta udalerriko errepideetan hainbat puntu beltz daudela.

Auzoko batek eskatu ditu semaforoak Virgen del Camenetik tren geltokiranzko gurutzagunean.

Auzoko batek galdetu du ea zergatik bidaltzen diren Gardeako herritarrak Aretara frotoian jolasteko.

ERANTZUNA.- Alkateak erantzun du lehenetsi dela frontoiaren erabilera pilotan jolasteko. Baina ez dakitela inor bidali izan denik jolastera Gardeatik Aretara.

Julian Larisgoitiak iradoki du aukera iragarki bat ipintzeko seinalizatzeko non dagoen Gardeako Auzo Etxea, izan ere hori baderitzo Laudiotik Amurriora bitartean dagoen "ibilbide"ko paseoan geldialdi puntu legez, eta Gardeatik pasatzen dena kafe bat hartzeko, eseri eta atsedena hartzeko, komunara joateko, e.a.

Eta beste gairik ez izanik tratatzeko, alkateak amaitutzat jo auzo batzarra, eskerrak emanez bertaratutako guztiei euren etorregatik, goian adierazita dagoen eguneko 20:45 orenak izanik.